



Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 1ekoa. Horren bidez, Zigoitiko Udalari gomendatzen zaio udal zerbitzuen erabiltzaileei zorrak dirutan, erabilera legaleko diruarekin, ordaintzeko aukera berma diezaiela.

Aurrekariak

1. Zigoitiko biztanle batek udal horren jarduteko moduaren legezkotasuna jarri zuen zalantzan erakunde honetan. Dirudienez, udalak eskaintzen dituen kultur, kirol eta gizarte jardueren tasei dagozkien hiru hilez behingo kuotak bankuan helbideratzeko eskatzen du eta ez du onartzen inolaz ere horiek dirutan ordaintzea.

Jardun horrek Zerbitzu Publikoak eman eta Administrazio Jarduerak egiteagatiko Tasa arautzen duen Udal Ordenantzaren 9. atalean du oinarria; horrek berariaz aipatzen du kultur, kirol eta gizarte jardueren erabiltzaileek inskripzioa formalizatzerakoan batean ordaindu beharko dutela matrikularen kostua –30 euro– eta hiru hilez behingo kuotak kasuan kasuko hiruhilekoaren 2. hamabostaldian ordainduko direla adierazitako helbideratze kontuan zordunduta.

Arrazoi hori zela medio, interesdunak erreklamazioa aurkeztu zuen aipatu udal ordenantza jendaurrean egon zen epean, baina bere alegazioak ezetsi egin ziren. Orduan, udalak honela oinarritu zuen bere erantzuna:

“Bankuan helbideratzeko baldintza zerbitzu publiko bat (ikastaroak) emateagatiko tasaren aurrean gaudelako ezarri da; hortaz, Toki Ogasunen Foru Arauaren 27.2 artikuluan eta, ildo beretik, Toki Ogasunen Legean ezarritakoarekin bat etorrituz, udalerriek bankuan helbideratzeko eska dezakete eta banketxeekin lankidetzaren hitzarmenak egin ditzakete ordainketak errazteko. Etxeko gainerako hornikuntzen antzeko kasu baten aurrean gaude”.

2. Guri zegokigunez, udalak bankuan helbideratu beharraren alde erabilitako legeko arrazoia aztertu ondoren, eta horiek aipatu irizpidea bermatzeko nahikoak ez zirela pentsatuz, informazio osagarria eskatu genion udal korporazioari, baina honek aipatu ordenantzak onartzeko prozesuaren baitan interesdunak egin zituen alegazioen aurrean bere garaian hartu zuen erabakia errepikatu baino ez zuen egin.



Gogoetak

1. 48/1994 Foru Dekretuan jasotzen den Arabako Lurralde Historikorako Diru-bilketako Erregelamenduak, lurraldea osatzen duten tokiko erakundeei zuzenean aplikatu beharrekoak ordainketak geroratzen edo zatikatzen direnean izan ezik (kasu horietan izaera gehigarria baino ez du) 23. artikuluan dio zorrak (nola zergazkoak izan hala ez izan) ordaintzeko bitartekoak honako hauek direla:

- Dirutan
- Efektu tinbratuen bidez

Dirutan ordaintzeko bitarteko gisa, honako hauek aipa ditzakegu:

- Erabilera legaleko dirua
- Txekak
- Kreditu eta zordunketa txartelak
- Transferentzia
- Banku helbideratzea

Ordainketa egiteko erabili beharreko bitartekoaz baliatzerik izan ezean, eta 23. artikuluko horretako 2. atalak ezartzen duenaren arabera, ordainketa dirutan egingo da.

Azkenik, Diru-bilketako Erregelamenduaren 27. artikulua dirutan ordaintzeko aukera desberdinen aplikazio praktikoari buruz sor litekeen edozein zalantza argitzen du; horren arabera, dirutan ordaindu beharreko zor guztiak erabilera legaleko diruarekin ordaindu ahal izango dira, hori jaso behar duen diru-bilketako organoa, ordainketa egiteko diru-bilketako aldia eta zorraren zenbatekoa edozein direla ere.

Horrela, agindu hori esku artean dugun kasuari zuzenean aplikatuta, eta beste edozein interpretazio lan egin beharrik izan gabe, esan behar dugu Administrazioak ezin duela banku helbideratzea ordainketa egitera behartuta daudenen zorrak kobratzeko formula bakar gisa erabili; alderantziz, helbideratzea erabilera legaleko diruarekin ordaintzearen ordezkotzat aukera baino ezin izan daiteke.



2. Toki Ogasunen Foru Arauaren 27.2 artikulua edukiari dagokionez, erabat ukatu behar dugu Zigoitiko Udalaren erantzuna; alegia, ustez, agindu horrek banku helbideratzea eskatzeko ahalmena ematen diela udalerriei.

27.2 artikulua hitzez hitz transkribatu dugu, horren benetako edukiaren froga gisa, horrek alferrikakoa ere egiten baitu kontu horren inguruko beste edozein azalpen ematea:

“2. Udalek lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango dituzte tasen subjektu pasiboak ordezkatzeko dituzten entitate, erakunde eta antolakundeekin, haiek berekin dakartzaten eginbehar formal eta materialak betetzea edo likidazio eta bilketarako prozedurak errazteko.”

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

13/2007 GOMENDIOA, ekainaren 1ekoa, Zigoitiko Udalari egina

Kontraprestazio ekonomikoa dakarten udal zerbitzuen erabiltzaileei zorrak dirutan, erabilera legako diruarekin, ordaintzeko aukera berma diezaiela kasu guztietan, Arabako Lurralde Historikorako Diru-bilketako Erregelamenduaren indarreko 27. artikuluan ezarritakoa zehatz betetze aldera.